

## Oinarriak

### "Blogarien eta saltokietako look-en argazki lehiaketa", Getxo Moda 2016ren 31. ediziokoa

Getxo Moda 2016ren 31. edizioaren parte den ekintza honen xede nagusiak lehiaketan parte hartuko duten saltokiak sustatzea da (gure lurraldean ezagunenak diren blogen bidez), eta baita lehiaketari esker harremanak eta sinergiak ahalbidetzea ere: blogari eta saltokien artean, saltokien eta haien bezeroen zein publiko orokorraren artean.

1. **Saltoki bakoitzeko gehienez 10 argazki** aurkeztu ahal izango dira lehiaketara; saltoki bakoitzari esleitutako blogariaren argazkia, saltokiko jantzi eta osagarriak dauzkana. Blogariak harremanetan dagoen saltokiarekin adostuko du zer argazki aurkeztuko duen lehiaketan.

2. Saltokiari esleitutako **blogariak bidaliko du** argazkia, posta elektronikoko honetara: [concursogetxomoda@gmail.com](mailto:concursogetxomoda@gmail.com), apirilaren 8a baino lehen, eta saltokiaren eta blogariaren izena eman beharko da. Argazkiek formatu horizontala izan behar dute, eta bereizmen ona. **jpg, gif edo png** formatuetan bidali behar dira.

3. **Apirilaren 11tik 17ra (biak barne)**, lehiaketara aurkeztutako argazkiak <https://www.getxoenpresa.com/actividades/31-getxo-moda-semana-de-la-moda-y-el-estilismo-de-getxo/> webgunean argitaratuko dira, saltokietako bezeroek eta publikoak orokorrean (**zinpeko epaimahaiaren osatuko dute**) **gogokoan duten argazkiaren alde bozka eman dezaten**. Bestalde, blogariak lehiaketara aurkeztu diren argazkiak zabalduko dituzte haien blogetan.

4. Zinpeko epaimahaiaren **bozka gehien jaso dituen argazkiak** lehiaketako blogari irabazlea nor den erabakiko du. Irabazleak **400 euroko saria** jasoko du, 2016ko ekainaren 30a baino lehen Getxo Modaren 31. edizioan parte hartzen duten saltokietan erabiltzeko. Saltoki bakoitzean gehienez 150 euro gastatu ahal izango da.

5. Zinpeko epaimahaiaren parte hartuko duten **boto-emaile guztien artean ausazko zozketa** egingo da, eta **irabazleak saria** jasoko du: **400 euro**, 2016ko ekainaren 30a baino lehen erabili beharrekoa, Getxo Modako 31. edizioan parte hartu duten saltokietan. Gehienez 150 euro gastatu ahal izango dira saltoki bakoitzean.

6. **Lehiaketako bi sariak apirilaren 21ean banatuko dira**, Getxo Modaren 31. edizioko sari banaketan, San Joseren Jauregian. **Irabazleak, haien saria jasotzeko, bertara gerturatu beharko dira**. Aipatutako egunean sari banaketara joan ezin badute, ezta haiek aukeratutako ordezkariak ere, ez dute saria jasotzeko eskubiderik izango. Kasu horretan lehiaketako zinpeko epaimahaiaren bozka gehien jaso dituen bigarren blogariaren argazkiari emango zaio saria. Horrek ere saria jaso ezin badu, edo aukeratzeko duen ordezkariak ere jaso ezin badu, bozka gehien jaso dituen hirugarren blogariaren argazkia litzateke irabazlea, eta horrela behin eta berriro. Eta boto-emaile guztien arteko zozketaren irabazlea, edo horrek aukeratutako ordezkaria, sari banaketara joan ezin bada ausaz beste irabazle bat aukeratuko dugu, behar bezain beste alditan, apirilaren 21eko sari banaketara joan daitekeen zozketaren irabazlea egon arte.

---

**Parte hartzeko baldintzak:**

- Blogari beraren zenbait argazki jasotzen badira, jantzi edo osagarri berdinekin, irudietako batek bakarrik parte hartu ahal izango du lehiaketan.
- Lehiaketatik at geratuko dira gorputz biluziak dauzkaten edo iradokitzen dituzten argazkiak, edota izaera erotikoa dutenak, edota edukiagatik ikusleentzat orokorrarean desegokiak direnak.
- Ez dira onargarriak izango lauso dauden argazkiak, edo kalitate txarra daukatenak, edo oinarrietako 2. puntuari aipatutako formatuetan bidaltzen direnak.
- Getxo Enpresa erakundeak irizten duen ikus-entzunezkoetan argazkiak publikatzeko eskubidea gordetzen du.
- Lehiaketan parte hartzen duten saltoki eta blogariak haien datu pertsonalen erabilera baimentzen dute lehiaketa egin ahal izateko, lehiaketaren publizitatea eta promozioa egiteko barne, eta baita Getxo enpresa erakundeak zehazten dituen sari eta ekintzak kudeatu ahal izateko ere.
- Lehiaketan parte hartzen duten blogariak Getxo Enpresa plagio edo jabetza intelektualari dagokion eta indarrean dagoen araudiaren edozein urratetik salbuesten du.
- Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek guztiz onartzea dakar, baldintza gabe, eta uko egiten zaio edozein kexa egiteari. Gainera, Getxo Enpresa, erakunde antolatzaile den heinean, oinarrietan aurreikusirik ez dagoen edozein erabaki hartzeko eskubidea gordetzen du.

---

**Informazio gehiago:**

Getxo Moda erakundea. Zugatzarte etorbidea, 20, behea, ezkerre. (Getxo)  
T: 94 653 21 34, concursorgetxomoda@gmail.com,